

PRENTSA-OHARRA

Naukas Bilbaok, zientzia-dibulgazioko ikuskizunik handienak, formatu berria estreinatuko du asteburu honetan

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Naukas dibulgazio-plataformak antolatutako ikuskizuna bihar itzuliko da Bilbora, formatu berrituarekin eta aldaketekin, edukietan zein hitzaldien iraupenean.

Bihartik igandera bitartean, Naukas Bilbaok publiko desberdinei zuzendutako hiru proposamen eskainiko ditu: Naukas Gazte, ikasleei zuzendutako saioa; Naukas Bilbao Hastapenak, publiko orokorrari zuzendutako hitzaldiekin, eta Naukas Kids, hurrei zuzendutako ikuskizunekin.

Bilbon, 2026ko irailaren 17an. Estatuko zientzia-dibulgazioko ikuskizun nagusia den **Naukas Bilbao** asteburu honetan itzuliko da Bilbora, eta hiriko hainbat gune zientziaz beteko ditu, besteak beste Euskalduna Bilbao, Bizkaia Aretoa-EHU eta Arte Ederren Museoaren Plaza. EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Naukas dibulgazioko-plataformak antolatutako ekimenak hamaseigarren edizioa egingo du aurten, formatu berrituarekin eta aldaketekin, edukietan zein hitzaldien iraupenean.

Ostiraletik igandera, Euskalduna Bilbao jauregiak publiko mota desberdinei zuzendutako hiru jarduera hartuko ditu: **Naukas Gazte**, bihar, hilak 18, goizez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzat pentsatutako hitzaldiekin; **Naukas Bilbao Hastapenak**, irailaren 19an, larunbata, goizeko eta arratsaldeko saioetan, publiko orokorrarentzako hitzaldiekin, eta **Naukas Kids**, irailaren 20an, igandean, hurrei zuzendutako jardurekin.

Gainera, Naukas Kidsen programazioa hiriko beste gune batzuetara ere zabalduko da, Bizkaia Aretoa-EHUn eta Arte Ederren Museoaren plazan antolatutako ikuskizunekin. Haurrentzako proposamenak hiru ikuskizun eskainiko ditu. Ikuskizunen sarrera librea izango da, tokiak bete arte.

Ostirala, hilak 18: Naukas Gazte

Bihar goizean, Naukas Bilbao Euskaldunako Auditoriumera itzuliko da Naukas Gazte 2026 saioarekin. Ekimena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzako pentsatuta dago. Naukas dibulgazioko plataformaren sortzaileetako bat den **Javier Peláez** eta **Idoia Torregerai** kazetaria eta umoregileak gidatuko dute.

Bertaratzen direnek 15 minutuko zortzi hitzaldi zientifiko labur eta entretenigarriak aditzeko aukera izango dute. Hizlariak hainbat gai jorratuko dituzte; besteak beste, unibertsoaren amaiera, kiroletik haratagoko bizitza edo etorkizunean 3D inprimaketak eskainiko dituen aukerak. **Josu Lopez-Gazpio** kimikaria eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Kimika sailburua, **José Luis Crespo** (Quantum Fracture) fisikaria eta dibulgatzaile zientifikoa, **Gemma del Caño** farmazialaria eta dibulgatzaile zientifikoa, eta **Ainara San Juan** osasun biologoa eta EHUko ikertzailea mintzatuko dira, besteak beste.

Larunbata, hilak 19: Naukas Bilbao Hastapenak

Larunbatean, Naukas Bilbao Hastapenak saioaren txanda izango da. Publiko orokorrari zuzendutako jardunaldiak dozena bat hitzaldi eta ikuskizun baino gehiago bilduko ditu, ildo nagusi baten inguruan: historiako hastapen handiak.

Hamabost minutuko istorioetan, zientziak aztertutako hastapen esanguratsuenetako batzuk jorratuko dira: unibertsoarena, hizkuntzarena, musikarena edo teknologiararena. **Santa Martinez** Europako Espazio Agentziako (ESA) sistemen ingeniaria, **Kepa Ruiz-Mirazo** Biofisika Institutuko (CSIC-EHU) fisikaria eta zientziaren filosofoa, eta **Joanes Lizarraga** kosmologoa eta EHUko ikertzaileak parte hartuko dute, besteak beste.

Igandea, hilak 20: Naukas Kids

Igande goizean, Naukas Bilbao 2026 bukatuko da **Naukas Kids** haurrei zuzendutako jardueren programaren aldi berri batekin. Aurtengoan, hiru ikuskizun egingo dira. Jardunaldiari hasiera emango dio “**Circoncienzia: pHízate**” ikuskizunak, Bizkaia

Aretoa-EHUko Mitxelena auditoriumean. Bertaratukoek kimikaren mundu zirraragarrian murgiltzeko aukera izango dute Aurora Ribosoma eta Armando Neutrino zirkozientzialarien eskutik.

Ondoren, **“HOMO Curiositatis”** kale antzerkiak ikusleak Arte Ederren Museoaren plazatik Euskalduna Bilbao jauregiraino egingo den ibilbide batean parte hartzera gonbidatuko ditu, hiru metroko altuera duen neandertal aurreko txotxongiloa eta etologo bitxi batekin batera. Jardunaldiari amaiera emango dio Euskalduna Bilbaon zuzenean eskainiko den EITBko Makusi plataformako **“Zientzia Piztia”** saioak. Esperimentu zientifikoetan oinarritutako ikuskizun honen helburua da zientzia etxeko txikienei modu atseginean gerturatzea. Arnaitz Fernández fisikaria eta meteorologoak eta Virginia Imaz pailazoa eta aktoreak aurkeztuko dute.

Naukas Bilbao 2026 [Bilbo Zientzia Plaza \(BZP\)](#) jaialdiaren parte da. Irailaren 16tik urriaren 4ra bitartean, BZPren bederatzigarren edizioak zientziaz beteko du Bilbo, hitzaldi, erakusketa, ikuskizun, tailer eta beste hainbat jarduerekin. Programatutako jardueri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [prentsa-dosiera](#).

Naukas Bilbao, el mayor espectáculo de divulgación científica, estrena nuevo formato este fin de semana

El espectáculo, organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la EHU y la plataforma divulgativa Naukas, regresa mañana a Bilbao con un formato renovado y cambios tanto en los contenidos como en la duración de las intervenciones

Desde mañana hasta el domingo, Naukas Bilbao ofrecerá tres propuestas dirigidas a públicos diferentes: Naukas Gazte, una sesión dirigida a estudiantes; Naukas Bilbao Inicios, con charlas enfocadas al público general, y Naukas Kids, con espectáculos para el público infantil

Bilbao, 17 de septiembre de 2026. Naukas Bilbao, el mayor espectáculo de divulgación científica referente a nivel estatal, regresa este fin de semana a Bilbao para llenar de ciencia distintos espacios de la ciudad como Euskalduna Bilbao, Bizkaia Aretoa-EHU, y la plaza del Museo de Bellas Artes. El evento, organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#) y la plataforma divulgativa [Naukas](#), celebra su decimosexta edición con un formato renovado, cambios en los contenidos y duración de las intervenciones.

Desde el viernes hasta el domingo, Euskalduna Bilbao acogerá tres propuestas dirigidas a públicos diferentes: **Naukas Gazte** (mañana, viernes 18 por la mañana, con charlas dirigidas a estudiantes de Secundaria, Bachillerato y Formación Profesional, aunque abiertas a todo el público), **Naukas Bilbao Inicios** (sábado 19, en sesión de mañana y de tarde, con charlas enfocadas al público general y un hilo conductor temático basado en grandes comienzos de la historia) y **Naukas Kids** (domingo 20, con espectáculos destinados al público infantil).

La programación de Naukas Kids también se extenderá a otros espacios de la ciudad, con espectáculos en Bizkaia Aretoa-EHU y la plaza del Museo de Bellas Artes. La entrada a las distintas funciones será libre hasta completar aforo.

Viernes 18: Naukas Gazte

Mañana, viernes, 18 de septiembre, Naukas Bilbao volverá al Auditorium del palacio Euskalduna Bilbao con **Naukas Gazte 2026**, una sesión pensada para estudiantes de secundaria, bachillerato y formación profesional. El evento estará conducido por **Javier Peláez**, cofundador de la plataforma de divulgación científica Naukas y la periodista y humorista **Idoia Torregarai**.

Quienes asistan podrán disfrutar de ocho charlas científicas breves y amenas de 15 minutos de duración en las que investigadores y profesionales de divulgación científica abordarán cuestiones tan diversas como el final del universo, la vida más allá del gimnasio o las posibilidades que ofrecerá la impresión 3D de cara al futuro.

Se subirán al escenario, entre otros, **Josu Lopez-Gazpio**, químico y coordinador del departamento de Química de UEU; **José Luis Crespo** (Quantum Fracture), físico y divulgador científico; **Gemma del Caño**, farmacéutica y divulgadora científica y **Ainara San Juan**, bióloga sanitaria e investigadora de la EHU.

Sábado 19: Naukas Bilbao Inicios

La segunda jornada de Naukas Bilbao 2026, **Naukas Bilbao Inicios**, se celebrará el sábado 19 de septiembre en el palacio Euskalduna Bilbao en sesión de mañana y tarde. A diferencia de las ediciones anteriores, en las que cada charla abordaba una temática independiente, este año todas las intervenciones comparten un mismo hilo conductor: grandes inicios de la historia.

A lo largo de las charlas, de quince minutos de duración, se recorrerán algunas historias sobre grandes comienzos estudiados por la ciencia: desde el origen del universo hasta el surgimiento de la vida, el lenguaje, la música o la tecnología. **Santa Martínez**, ingeniera de sistemas de la Agencia Espacial Europea (ESA); **Lorena Pérez**, lingüista e investigadora de la Universidad de La Rioja; **Kepa Ruiz-Mirazo**, físico y filósofo de la ciencia del Instituto de Biofísica (CSIC-EHU) y **Joanes Lizarraga**, cosmólogo e investigador de la EHU, entre otros ponentes, participarán en el acto.

Domingo 20: Naukas Kids

Naukas Bilbao 2026 cerrará este domingo con una nueva edición de **Naukas Kids**, programa de actividades dirigido al público infantil. La jornada comenzará con el espectáculo **“Circonciencia: pHízate”** en el auditorio Mitxelena del Bizkaia Aretoa-EHU. El público podrá adentrarse en el apasionante mundo de la química de la mano de Aurora Ribosoma y Armando Neutrino, dos circocientíficos que combinarán malabares, acrobacias y grandes dosis de humor.

A continuación, el espectáculo teatral callejero **“HOMO Curiositatis”** invitará a los espectadores a realizar un recorrido desde la plaza del Museo de Bellas Artes hasta el palacio Euskalduna Bilbao junto a una marioneta de un preneandertal de tres metros de altura y un extravagante etólogo. A través de este singular viaje, ambos tratarán de tender puentes de entendimiento entre los seres humanos actuales y nuestro pasado preneandertal.

El evento terminará con un espectáculo en directo del programa **“Zientzia Piztia”** de la plataforma Makusi de EITB desde el Euskalduna Bilbao. Este espacio de experimentos científicos busca acercar la ciencia a los más pequeños de la casa. El físico y meteorólogo **Arnaitz Fernández** y la payasa y actriz **Virginia Imaz** presentarán la sesión.

Naukas Bilbao 2026 se enmarca dentro del festival de divulgación científica [Bilbo Zientzia Plaza 2026 \(BZP\)](#). Del 16 de septiembre al 4 de octubre, la novena edición de BZP llenará Bilbao de ciencia con un amplio programa de conferencias, exposiciones, espectáculos, talleres y otras actividades. Consulta el [dossier de prensa](#) con toda la programación.